


Denbora

2 Aurkitu irudian

Mikeli izugarri gustatzen zaio gauetan zeruari begira egon, eta argazkiak ateratzea. Ilargiak itxura bera izaten du batzuetan. Irudi honetan, esaterako, 3 ilargi errepikatzen dira.



3 Itzalak

Ezer ulertzen al duzu? Hizki bakoitza dagokion lekuan jartzen baduzu, lau koloreren izenak osatuko dituzu.

Zein kolore dira?

ZIRUA

ROGRAI

IOHRA

AMRAORI

Erantzunak: 3.- Zuria, gorria, horia eta marroia. 4.- Xabier Saldias eta Egan, Natxo de Felipe eta Oskorri, Alex Sardui eta Gatibu, Gorka Urbizu eta Berti Txartrak. 5.- C eta D.


saskibaloiko saskia

Inoiz jolastu al zara saskibaloian zuk egindako saskiarekin? Hona hemen saskia egiteko argibideak. Amaitzean, zoaz saski berria probatzerat!

Beharrezko materiala


- Guraizeak.
- Zulañailua.
- Soka gorria, berdea eta beltza (sokak plastikozkoa izan daitezke).
- Zinta eranskor gorria, beltza eta zuria.
- Plastiko biguneko hañaxka grisa. Hañaxka metro bat luze izango da.
- 5 litroko plastikozko ur ontzia. Plastikozko ontziak alboko heldulekua izan behar du.
- Egur zati bat. Neurriak: 46cm x 46 cm.
- Orri eranskor zuria. Neurriak: 46cm x 46 cm.

Egiteko modua



1 Plastikozko ontzia hartu, eta moztu beheko zatia. Heldulekuaren kontrako aldean, bi zulo txoko egin zulañailuarekin. Saskia amaitzean, zulo hauek erabiliko ditugu saskia hormatik zintzilik jartzeko.

2 Egur zati bat hartu, eta zehaztutako neurrietan moztu ostean, azalezkatu orri eranskor zuriarekin; saskia jartzeko taula lortuko dugu honela.



3 Taula apaintzeko, zinta eranskor gorria ipini taularen ertzean. Taularen erdian, berriz, laukitxo bat egin zinta eranskor beltzarekin. Laukitxo horrek 21 cm x 21 cm neurtuko ditu. Taularen erdian, marraztu dugun laukitxoaren azpian, zulo bat egingo dugu. Zuloak plastikozko ontziaren lepoaren tamaina izan behar du, hortik sartu behar baitugu ontziaren lepoa. Zuloa egiteko, guraizeak erabili. Zuloa egiteko, badaezpada, eskatu heldu baten laguntza.

-pasa



Xabier Saldias
Natxo de Felipe
Alex Sardui
Gorka Urbizu



Oskorri
Gatibu
Berri Txarrak
Egan

4 Sagu Jakintsua


Musika entzutea atsegin al duzu? Hala bada, ziur euskal talde hauen abeslaria zein den asmatzen duzula.
Ea lortzen duzun!

5 Sarraileak


Federikok giltza bat topatu du tiraderan.
Giltzatakotan zituen giltzekin jartzean, beste berdin bat duela ohartu da.
Zein dira bi giltza berdinak?



4 Egindako zulotik sartu plastikozko ontziaren lepoa. Ontziaren ahoa taulari ongi itsatsita geratzeko, zinta eranskor zuria ipin dezakezu.



5 Plastikozko soka gorria, beltza eta berdea hartu, eta 80 cm-ko 15 bat soka zati moztu. Moztutako soka zatiak haġaxkari lotu, hiru koloreak tartekatuz. Soka zatiak elkarren artean lotu, korapilo bat eginez; hala, sarea eġin ahal izango duzu.



6 Plastikozko haġaxka ontziaren lepotik barrena sartu. Haġaxkaren bi puntuk gurutzatuta behar dute atzeko aldetik. Zinta eranskorra erabili, haġaxka plastikozko ontziari itsatsia geratzeko. Modu horretan, saskiaren uztaiak egingo duzu. Amaitu duġu saskia; orain, baloia hartu, eta eġin saskiratzeak!

